



I.- ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN AGIRIA, ARAUTUKO DUENA EMAKUMEENTZAKO AHOHKULARITZA JURIDIKOAREN KONTRATAZIOA. ZERBITZUA ALTSASUKO UDALAREN BERDINTASUN ARLOAREN MENDE EGONGO DA.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Administrazio klausula hauetan aipatzen den kontratuaren xedea da emakumeentzako aholkularitza juridikoko zerbitzua garatzea. Zerbitzua Altsasuko Udalaren Emakume eta Berdintasun Sailaren mende egongo da.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen eranskinaren arabera, kontratu honek jasotako zerbitzurako kodifikazioa, Europako Batzordearen Kontratueterako Hiztegi Batuari (CPV) dagokiona, honako hau da:

79140000-7 Aholkularitza eta informazio juridikoko zerbitzuak.

Aholkularitza juridikoko zerbitzua baldintza-agiri honen I. ERANSKINEAN agertzen diren baldintza teknikoen arabera emango da.

2.- ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROZEDURA

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean xedatutakoarekin bat etorriz, plegu honen xede diren zerbitzuen kontratazioa prozedura irekiaren bidez esleituko da, komunitateko atalasetik beherako prozedura irekiaren bidez.

Izapidetze aurreratuko espedientea aplikatzen da, KPFLren 139.1 artikulua jarraiki; beraz, kontratuaren ondoriozko betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintza etenarazlearen mende jartzen da esleipena.

3.- KONTRATAZIO-ORGANOA ETA KONTRATUA KUDEATZEKO UNITATEA

Aholkularitza eta informazio juridikoko zerbitzuen kontratu honen kontratazio-organoa Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordea da.

Emakume eta Berdintasun Saila eta Idazkaritza unitateek kudeatuko dute kontratua.



4.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Emakumeei aholkularitza juridikoa emateko laguntza teknikoko kontratuak urtebeteko iraupena izango du. Nolanahi ere, epe bereko luzapenak egin ahal izango dira, baina kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, ez da bost urtetik gorakoa izango.

Luzapenak berariaz adostuko dira, bi aldeek aldez aurretik adostuta kontratua edo indarreko luzapena iraungi baino gutxienez bi hilabete lehenago.

Hala ere, enpresa esleipendunak zerbitzua ematen jarraitu beharko du, nahiz eta kontratua salatu edo luzapena amaitu, harik eta beste kontratu bat indarrean sartu arte, plegu honek indarrean jarraitzen duela, gehienez ere sei hilabeteko mugarekin.

5.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIO-AURREKONTUA

Zerbitzu-kontratuaren balio zenbatetsia, lehenengo urtea eta hiru luzapen posibleak zenbatetsita, 20.165,95 eurokoa da, BEZik gabe (24.400,80 euro, BEZa barne). Zenbateko hori 336,11 euroko hilekoetan ordainduko da, BEZik gabe (406,68 euro, BEZa barne). Kontratu honetan ez da prezio berrikuspenik izango.

Kontratuaren lizitazio-aurrekontua 4.033,19 eurokoa da, BEZik gabe (4.880,16 euro, BEZa barne). Aurrekontu hori gainditzen duten proposamenak baztertu egingo dira.

Finantzaketa Altsasuko Udalaren aurrekontuko 1 2391 22799.01 "Emakumeentzako aholkularitza juridikoko kontratua" aurrekontu-aplikazioaren kontura egingo da, baldin eta ondoz ondoko luzapenetan aurrekontu-kreditua badago.

6.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Administrazioarekin kontratuak egin ahal izango dituzte jarduteko gaitasun osoa duten eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritako kontratatzeke debeku edo bateraezintasuneko ezein kausatan sartuta ez dauden pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek edo atzeritarrek, baldin eta interes-gatazkako egoeran ez badaude eta kontratua gauzatzeko kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesional nahikoa dutela egiaztatzen badute.



Pertsona juridikoak kontratuen adjudikaziodunak izan ahalko dira, baldin eta kontratu horiei dagozkien helburu, xede edota jarduera-eremuak estatutu nahiz eratze-arauetan jasota badituzte.

Aldi baterako elkarteetan bildutako enpresek kontratatu ahal izango dute. Kasu horretan, elkarrekiko obligazio solidarioa izango dute, eta batasunaren ordezkari edo ahalzun bakar bat izendatu beharko da, kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak gauzatzeko behar besteko ahalordea izango duena, harik eta kontratua bukatu arte. Nolanahi ere, botere mankomunatuak eman ahal izango dira zenbateko handiko kobrantza eta ordainketetarako. Lizitazioaren ondorioetarako, aldi baterako enpresa-elkarte batean parte hartzen duten enpresek elkarte osatzen duten pertsonen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, bai eta horietako bakoitzak zer partaidetza duen ere. Halaber, kontratuaren esleipendun izanez gero, aldi baterako enpresa-elkarte formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela adierazi beharko dute.

Era berean, elkarrekin parte hartzen duten lizitatzaleek kontratatu ahal izango dute, kasu horretan, elkarrekiko obligazio solidarioa izango dute. Parte-hartze hori formalizatzeko, agiri pribatu bat aurkeztuko da, non adierazi beharko baita batera parte hartzeko borondatea dutela, bakoitzak zenbateko parte-hartzea duen eta elkartearen ordezkari edo ahalorde bat izendatu dela, behar adinako eskumenak dituen kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak erabiltzeko, hura iraungi arte; hala ere, zenbateko esanguratsuak kobratu nahiz ordaintzeko, ahalorde mankomunatua ezarri ahalko da. Era berean, plegu honetako baldintzak bete beharko dituzte.

7.- KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Kontratua egiteko ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Kontratuaren xede diren programen eremuko negozio-bolumenari buruzko aitorpena (aholkularitza juridikoa), esleipendunaren sortze-dataren edo jardueren hasiera-dataren arabera eskuragarri dauden azken hiru ekitaldiei buruzkoa; urte



bakoitzeko negozio-bolumena 20.165,95 eurokoa edo handiagoa izan beharko da, BEZik gabe.

8. KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Zerbitzu honetarako eskatutako kaudimen teknikoa honela egiaztatuko da:

- Kontratua garatzeko ardura duen pertsonaren edo pertsonen Zuzenbideko lizentziatura.
- Abokatu edo jarduneko abokatu gisa alta emanda egotea abokatu-elkargoren batean.
- Generoari eta berdintasunari buruzko prestakuntza izatea, bai eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa ere (gutxienez 50 ordu).
- Abokatutza Elkargoetako Emakumeei Laguntzeko Zerbitzuan (ELZ) gutxienez 2 urtez lan egin izana.

Zerbitzua pertsona bakar batek baino gehiagok garatuko badu, kaudimen teknikoari buruzko dokumentazioa pertsona guzti-guztiei buruzkoa izango da.

9.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

9.1. LEKUA ETA EPEA

Erakunde lizitatzailerik bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean, ezin izango du beste erakunde lizitatzailerik batzuekin batera parte hartzeko proposamenik izenpetu, banakako proposamena aurkeztu bada, eta ezin izango da talde horietako batean baino gehiagotan agertu. Hori ez betetzeak eta lotutako enpresek aldi berean eskaintzak aurkezteak sinatutako eskaintza guztiak atzera botatzea ekarriko du.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen dela lizitazioa arautzen duten baldintza-agiriko klausula guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.



Lizitazioan interesa dutenek, Kontratazio Atariaren bidez, baldintza-agiriei eta gainerako agiri osagarriei buruzko informazio gehigarria eskuratu ahalko dute, eskatzen dutenetik hiru eguneko epean.

Eskaintza osatzen duten dokumentuak Nafarroako Lizitazio Elektronikoen Plataformaren bidez (PLENA) bakarrik aurkeztu behar dira. Plataforma hori Nafarroako Kontratazioaren Atariko lizitazio-iragarkian (www.contrataciones.navarra.es) egongo da eskuragarri, hurrengo paragrafoetan ezarritakoaren arabera.

Halaber, interesdunekin egin beharreko komunikazio eta gainerako izapide guztiak Nafarroako Lizitazio Elektronikoen Plataformaren bidez (PLENA) eginen dira.

Eskaintzak aurkezteko epea HAMABOST egunekoa izanen da, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Enpresa lizitatzailleak bere eskaintza ixten duenean, eskaintzaren edukiaren azterna bat sortuko da laburpen kriptografikoaren bidez, eta eskaintzaren berri jasoko da. Lizitatzailleak arazoak* baditu bere eskaintza PLENAn aurkezteko orduan, baldin eta azterna – laburpen kriptografikoa – eskaintzak aurkezteko epearen barruan kontratazio-organoari bidaltzen bazaio posta elektronikoz, Kontratazio Atarian ezarritako harremanetarako helbidera, 24 orduko epea izango da eskaintza osoa PLENAn bidez jasotzeko eta aurkezpena amaitutzat emateko. Baldintza horiek bete ezean, ez da onartuko parte hartzeko eskaera, lizitazioaren iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen bada.

* Ondorio horietarako, ikusten da zenbat eta handiagoa izan eskaintzaren pisua (MB-tan neurtua), orduan eta handiagoa izan daitekeela eskaintzak aurkezteko behar den denbora. Hori guztia, beste inguruabar batzuk gertatzen direla kontuan hartu gabe, hala nola konexioaren kalitateagatik datuak igotzeko abiadura txikiagoa izatea.

Aurkezpena egiteko erabiliko den ekipoaren ordua Nafarroako Gobernuko zerbitzariaren orduarekin bat etorri behar da, gehienez ere 5 minutuko desfase-tartearekin.



Nafarroako Gobernuko zerbitzariak Denbora Unibertsal Koordinatua (UTC) erabiltzen dute erreferentzia gisa, hau da, erreferentziazko nazioarteko laborategiek zehaztasunez mantentzen duten denbora unibertsalaren eskala: +/- 1s. Beraz, hau da zerbitzu elektronikoen ordu ofiziala:

- Oinarrizko ordu-iturria: hora.roa.es (Itsas Armadaren Errege Institutua eta Behatokia: bi zerbitzari San Fernando Cádiz-en, eta hirugarren bat Madrilen).
- Bigarren mailako ordu-iturriak:
 - canon.inria.fr , INRIA, Paris
 - i2t15.i2t.ehu.es , UPV-EHU

Gutun-azalak irekitzean, epez kanpo aurkeztu direla ikusten bada eta horren gainean aztarna bat jaso bada, aurkezpen hori balioztatu egingo da, aztarna bat baldin badator, eta harrera-eguna 24 orduko epearen barruan badago, eskaintza baliozkotzat joko da eta ireki egingo da. Aldiz, aztarna bat ez badator, edo eskaintza 24 orduko epean kanpo jaso bada, eskaintza baztertu egingo da, eta ez da inoiz haren edukia irekiko.

Eskaintza epez kanpo aurkeztu bada eta enpresa edo erakunde lizitatzailerak aurkezpenean arazo teknikoak daudela adieraziko balu, eskaintza aurkezteko unean Plataforman arazo teknikoak izan ziren egiaztatuko da. Plataformaren ohiko funtzionamenduan eragin teknikorik izan bada bakarrik onartuko da aurkeztutako eskaintza. Lizitatzailerak ez ezagutzeak edo Plataformakoak ez diren arazo teknikoek ez dute justifikatuko eskaintza epez kanpo aurkeztea eta berau baztertzeko ekarriko dute.

9.2. PROPOSAMENAREN FORMA ETA EDUKIA

Kontratazioaren Atariko lizitazioaren iragarkitik Nafarroako Lizitazio Elektronikoen Plataformaren (PLENA) gunera sar daiteke. Bertan, lizitazioan interesa duen edonork mahai gaineko aplikazio bat deskarga dezake, eskaintzak gutun-azal digital bidez prestatu eta aurkezteko. Aplikazio hau behin bakarrik deskargatu behar da, eta haren mende dagoen edozein entitatek PLENA bidez egiten duen edozein lizitaziotarako balio du.



Eskaintzak lizitatu behar duenaren mahai gainean zifratzen dira zifratze-mekanismo estandarrak erabiliz, eta, aurkeztu ondoren, biltegi seguruan uzten dira.

Eskaintza sinadura elektroniko onartuaren bidez sinatu beharko da. Sinadura elektroniko hori Ziurtapen Zerbitzuen Emaile batek emango du eta dokumentuaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien nortasuna eta osotasuna bermatuko ditu, sinadura elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean eta kontratazio publiko elektronikoko gainerako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Eskaintza elektronikoan erantsitako banakako fitxategi bakoitzaren tamaina 50 MB da. Eskaintzaren tamaina, osatzen duten dokumentu guztiekin, gehienez ere 100 MBkoa izango da. PLENA-k ez du mugarik jartzen eskaintza bati erants dakizkiokeen fitxategi-kopuruan.

Eskaintzaren aurkezpenean erantsitako dokumentuetarako PLENA-k onartzen dituen formatuak normalean erabiltzen direnak dira (doc, docx, xls, xlsx, ppt, ppt, rtf, sxw, abw, pdf, bmp, tiff, tif, odt, odp, odp, odi, dwg, zip.), eta, ordezkotako neurri gisa, beste formatu batzuetako fitxategiak eransteko, fitxategi konprimitu batean (ZIP) bil daitezke.

Plataformako inprimakietan sartutako balio objektiboak eta irizpide bakoitzari babesa ematen dioten dokumentu erantsiak bat ez badatoz, lehentasuna izango dute entitate edo enpresa lizitatzailerak edo ordezkaritza ahalmena duenak elektronikoki sinatutako dokumentu eta eranskinek.

Enpresa lizitatzailerak beren proposamena idatziko dute sexuaren arabera bereizitako datuak erabiliz, betiere pertsonen buruzko datuak sartzen badituzte.

Proposamenak eskaintza honetarako PLENA-n ezarritako egituraren arabera aurkeztuko dira eta 3 gutun-azal izango dituzte, honela identifikatuak:

- “1. Gutun-azala: administrazio-dokumentazioa”.

- “2. Gutun-azala: formulen bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa”.



- “3. Gutun-azala: formulen bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”.

Gutun-azal bakoitzak agiri hauek izan beharko ditu:

1. Gutun-azala: "Administrazio-dokumentazioa".

Honako agiri hauek sartu beharko dira nahitaez:

1. Erakunde lizitatzaillearen edo lizitatzailleen identifikazioa, II. Eranskinean adierazitako ereduaren arabera.
2. Entitate lizitatzaillearen edo, hala badagokio, haren ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, kontratatzeke eskatzen diren baldintzak betetzen dituela adieraziz.

Adierazpen hori III. Eranskinean adierazitako ereduaren arabera izango da.

3. Proposamena elkarrekin edo aldi baterako enpresa-elkartean parte hartzen duten erakunde lizitatzailleak izenpetzen badute, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena sinatu eta agiri pribatu bat erantsiko du. Agiri horretan batera parte hartu nahi dutela eta bakoitzari dagokion partaidetza-portzentajea adierazi beharko dute, eta ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatuko dute, kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalmena izango duena, kontratua iraungi arte. Parte hartzen duten enpresek eta ahaldunak sinatu beharko dute idazkia.

2. Gutun-azala: "Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa".

Erakunde lizitatzailleak aurkezten duen dokumentazio guztia jasoko du, balio-judizio baten mende dauden baldintza-agiri honetan jasotako adjudikazio-irizpideak baloratu eta puntuatzeko.

Zehazki, ondoko dokumentuak edukiko ditu:



1. Emakumeei aholkularitza juridikoa emateko zerbitzuari buruzko proiektu teknikoaren azalpen-memoria.

Gutun-azal honetan ezingo da sartu eskaintza ekonomikoaren inolako erreferentziarik, ez eta formulen bidez kuantifikatu daitezkeen irizpiderik ere.

3. Gutun-azala: "Formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa".

Gutun-azal honetan eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideen gainekoa sartu beharko dira.

1. Eskaintzaren alderdi sozialak

Atal honetan, irizpide sozial gisa balora daitezkeen eskaintzaren alderdiak zehaztuko dira; zehazki, urtean gutxienez hitzaldi bat emateko konpromisoa, emakumeen aurkako indarkeriari edo familia-eskubideari buruzkoa (ezkontzak, banantzeak, dibortzioak). Hitzaldia beste eremu batzuetako profesionali edo, oro har, herritarrei zuzenduta egongo da.

2. Eskaintza ekonomikoa

Proposamena IV. Eranskinean jasotako ereduaren arabera egingo da.

Baztertu egingo dira onartutako lizitazio-aurrekontua baino zenbateko handiagoa duten proposamenak. Gehienez bi hamartar erabiliko dira. Eskaintzan jasotako kantitateei dagokienez, letraz adierazitako kantitateak nagusituko dira zifraz adierazitakoen gainetik.

Proposamena erakunde lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatu beharko du. Baterako partaidetzako lizitazioen kasuan, kide guztiek edo haien ordezkariak sinatu beharko dute.

10. ESKAINTZA NEURRIGABE BAXUAK



Eskaintza bat baxuegitzat jo ahal izango da lizitazio-aurrekontua baino % 30 txikiagoa bada. Kasu horretan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 98. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Esleipendunak baxuegitzat jo daitekeen eskaintza aurkeztu badu, esleipen-prezioaren 100eko 50era arteko fidantza eratu beharko du, kontratua jaso aurretik itzuli edo zati batean ezereztu ahal izateko kalterik egin gabe, kontratua kudeatzen duen unitateak txostena egin ondoren.

Nolanahi ere, baztertu egingo dira eskaintza baxuegiak, hain zuzen ere, azpikontratazioari buruzko araudia urratzeagatik edo ingurumen, gizarte, lan, nazio edo nazioarteko arloko betebeharrak ez betetzeagatik, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak barne.

11.- PROPOSAMENAK KUDEATU ETA IREKITZEKO UNITATEA

Proposamenak irekiko dituen Kudeaketa Unitatea eta legeak agintzen dizkion gainerako eginkizunak Emakumearen eta Berdintasunaren Alorra izanen da, Udaleko Idazkaritzarekin batera.

Kudeaketa Unitateak, ekitaldi pribatuan, lizitatzailleek garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentazio administratiboa 1. Gutun-azalean sailkatuko du, onartuak izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

Kudeaketa Unitateak bost egun naturaleko epea ematen ahalko du akatsak zuzentzeko edo dokumentazio hori osatzeko. Zuzentzeko epea igaro eta eskatutako dokumentazioa osatu edo zuzendu ez bada, prozeduran baztertuko da, eta inguruabar hori agiri bidez jasoko da.

Administrazio-dokumentazioa kalifikatu ondoren, Kudeaketa Unitateak 2. Gutun-azala ("Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko du, eta onartutako enpresen balorazioa egingo du, baldintza-orri honetan adierazitako irizpideen arabera behar bezala haztatutako esleipen-irizpideen arabera.



Ondoren, formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideen edukia irekiko da, eta eskaintzen edukia publikoa izanen da.

Eskaintzaren zati hau ireki baino lehen, Kudeaketa Unitateak lizitatzailerik aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioaren emaitza jakinaraziko die bertaratutakoei, onartutakoak, onartu ez direnak, ez onartzeko arrazoiak eta gainerako irizpideetan lortutako balorazioa adieraziz.

12.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Proposamenak hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren arabera idatziko dira, hizkuntza eta irudi barneratzailea arautzen duen Ordenantzaren arabera (238. NAO, 2011ko abenduaren 1ekoa), eta pertsonen buruzko datuak erabiltzen badira, sexuaren arabera bereizita aurkeztuko dira beti.

Altsasuko Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantzaren 16.2 artikuluan jasotakoaren arabera, lizitatzailerik konpromisoa hartuko dute Udalak onartutako sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloa beren gain hartzeko.

Baldintza horiek behin eta berriz betetzen ez dituzten proposamenak baztertu egingo dira.

Balorazioa egiteko, kontuan hartuko da proposamena zenbateraino egokitzen zaion Altsasu herriaren eta Altsasuko Udalaren egiturari, bai eta haren kalitateari ere, honela banakatutako atalen arabera:

a) Aholkularitza juridikoko zerbitzuari buruzko proiektu teknikoa (40 puntu gehienez).

Gehienez ere hamar orriko luzera izango du, eta aholkularitza juridikoko programa nola gauzatuko den adierazi beharko da, programaren kalitatea hobetzeko balio dezaketen alderdi guztiak azpimarratuz, horiek gauzatzeko konpromisoa hartzen baitu.

Gutxienez honako hauek zehaztu beharko ditu:

1. Oinarria: emakumeentzako aholkularitza juridikoaren proposamena Altsasuko Udalaren testuinguruan kokatzea (5 puntu gehienez).



2. Lan-metodologia, berdintasun-agentearekiko koordinazioa kontuan hartuta (15 puntu gehienez).

Aholkularitza eska dezaketen gaiak.

Doako justiziaren eskaeren kudeaketa.

Erabiltzaileei buruzko informazioa biltzeko prozedura.

Datuen konfidentzialtasuna bermatzeko prozedura.

Berdintasun-agentearekin lankidetzeta eta koordinazioa gauzatzeko prozedura.

3. Zerbitzua ematen duen profesionalaren edo profesionalen antolamendua (15 puntu gehienez).

Maiztasuna eta arreta-ordutegia, betiere agiri honetan adierazitako gutxienekoa errespetatuz.

Edozein gertakariren aurrean zerbitzua estaltzeko bermea.

Berdintasun-agentearen eskakizunei erantzuteko epea.

4. Zerbitzuaren jarraipena eta ebaluazioa (5 puntu gehienez).

Zerbitzuaren jarraipena egiteko eta Udalari informazioa emateko metodologia.

Zerbitzua ebaluatzeko metodologia.

b) Irizpide sozialak (10 puntu gehienez).

Urtean gutxienez bi orduko saio bat emateko konpromisoa, emakumeen aurkako indarkeriari edo familia-eskubideari buruzkoa (ezkontza, banantzeak, dibortzioak), beste eremu batzuetako profesionalai edo, oro har, herritarrei zuzendua.

Proposatzen den ordu-kopurua zehaztu beharko da proposamenean.

Irizpide hori proportzionalki baloratuko da, eta ordu-kopuru altuena eskaintzen duen proposamenari 10 puntu emango zaizkio, eta gainerakoak proportzionalki puntuatuko dira, proposatutako orduen kopuruaren arabera.

c) Eskaintza ekonomikoa (50 puntu gehienez).



Eskaintza ekonomikoak baloratzeko, adierazitako formula aplikatuko da. Gehienez bi hamartar erabiliko dira:

$$\text{Eskaintzaren puntuazioa} \times \frac{\text{Eskaintako gutxieneko prezioa}}{\text{Aurkeztutako eskaintza}} = 50 \times$$

13.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK ETA JUSTIFIKAZIO-AGIRIAK

Bi eskaintza edo gehiagoren arteko berdinketa gertatzen bada, berdinketa hausteko irizpide hauek aplikatuko dira, ordena honetan:

- 1) Emakumeei aholkularitza juridikoa ematen urte gehiagoko esperientzia duen profesionala aurkezten duen proposamena, betiere aholkularitza emateko kontratua tokiko entitatearen batek egin badu.

Hori justifikatzeko, aholkularitza juridikoko zerbitzuaren titular diren toki-erakundeek egindako ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

- 2) Berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prestakuntza handiena duen profesionala aurkezten duen proposamena.

Prestakuntza antolatzen duten erakundeek emandako bertaratze-ziurtagiriak aurkeztuta justifikatuko da.

Aurreko irizpideak aplikatu ondoren berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da.

Berdinketa hausteko irizpideak aplikatzeko, eragindako erakunde lizitatzailaeei eskatuko zaie bost egun naturaleko epean dagokion dokumentazioa aurkezteko.

14.- ESLEIPENDUNAK GAITASUNA ETA KAUDIMENA EGIAZTATZEKO AGIRIAK AURKEZTEA

Kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena jakinarazten duenetik gehienez ere 7



egun naturaleko epean, erakunde lizitatzailleak honako dokumentazio hau aurkeztuko du:

1. Erakunde lizitatzaillearen eta, hala badagokio, proposamena sinatzen duen ordezkariaren nortasuna egiaztatzen duten agiria edo agiriak, hain zuzen ere, honako hauek:

1.1.- Nortasun Agiri Nazionala (edo erregelamendu bidez ordeztzen duen agiria), pertsona fisikoen edo enpresa indibidualen kasuan.

1.2.- Entitate lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturiko eratze- edo eraldatze-eskritura, betekizun hori galdagarria bada aplikagarri zaion merkataritza-legediaren arabera. Hala ez bada, eratze- edo eraldatze-eskritura edo dokumentua aurkeztu beharko da, edota estatutuak edo sorrera-egintzaren agiria, bertan agertuko dira jarduera erregulatzen duten arauak eta, kasua bada, dagokion erregistro ofizialean inskribaturik izan beharko du.

Beste pertsona baten izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek behar adinako notario-ahalordea aurkeztu beharko dute, kasuan kasuko erregistrokoa, aurreko paragrafoko eskrituran ez bada hori ageri, baita ahalordedunaren Nortasun Agiri Nazionala ere, edo erregelamendu bidez ordeztzen duen agiria.

Enpresa azaroaren 5eko 236/2007 Foru Dekretuak araututako Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailleen Borondatezko Erregistroan inskribatuta badago, enpresaren nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzeko nahikoa izango da Internet bidez elektronikoki lortutako Erregistro horretako inskripzio-ziurtagiriaren kopia aurkeztea, bai eta haren indarraldiaren erantzukizunpeko adierazpena ere.

1.3.- Eskaintza elkarrekin parte hartzen duten erakunde lizitatzailleek aurkeztzen dutenean, erakunde bakoitzak bere nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatuko ditu, eta agiri pribatuan adierazi beharko ditu enpresa sinatzaileen izenak eta inguruabarrak eta enpresa bakoitzaren partaidetza. Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean Administrazioaren



aurrean ordezkaritza osoa izan behar duen pertsona edo entitatea izendatu beharko dute. Dokumentu hori elkartutako erakunde lizitatzailerak bakoitzak edo haien ordezkariak sinatu beharko dute.

Erantzukizuna solidarioa eta zatiezina izango da beti kontratutik eratorritako betebeharren multzoari dagokionez.

2. Erakundearen Identifikazio Fiskaleko zenbakia. Batera parte hartzen duten enpresek aurkezten badute eskaintza, enpresa bakoitzak IFZ jarriko du.

3. Kasuan kasuko ogasunek egindako ziurtagiri positiboak (Nafarroako Foru Ogasuna eta/edo Estatuko Ogasuna eta/edo Foru Ogasunak) eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarenak, entitate lizitatzailerak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen dutenak. Ziurtagiri horiek, gehienez ere, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino sei hilabete lehenagokoak izango dira.

Aldi baterako eratzen diren enpresek edo elkarrekin parte hartzen duten erakunde lizitatzailerak aurkeztutako eskaintzak badira, elkarteko kide guzti-guztiek aurkeztu beharko dituzte ziurtagiri horiek.

4. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda eta egunean egotearen ziurtagiria, egoitza Altsasutik kanpo duten erakunde lizitatzailerak badira. Lizitatzailerak Altsasuko Udalean helbideratuta badago, ofizioz egiaztatuko da hori betetzen dela.

5. Hala badagokio, erakunde lizitatzaileraren erantzukizunpeko adierazpena, indarrean dauden xedapenak ezarritako segurtasun-betebeharrak, laneko osasunekoak eta laneko arriskuen prebentziokoak (sexu-jazarpenaren edo sexuan oinarritutako jazarpenaren kasuan jarduteko protokoloa barne) egunean dituela adierazten duena.

Era berean, behartuta egonez gero, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko 3/2007 Lege Organikoa enpresetako berdintasun-planei dagokienez betetzen dela gehituko da adierazpen honetan.



Aldi baterako eratzen diren enpresek edo elkarrekin parte hartzen duten erakunde lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzen kasuan, elkarteko kide guztiek adierazitako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

6. Kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko agiriak.

Finantza-erakundearen txostena, kontratuko betebeharreari aurre egiteko gaitasun ekonomikoa nahikoa egiaztatzen duena.

7. Gaitasun teknikoa egiaztatzeko agiriak.

- 7.1. Zuzenbideko lizentziaturako edo graduako unibertsitate-tituluaren fotokopia.
- 7.2. Abokatuen elkargoetakoren batekoa izatea egiaztatzen duen agiria.
- 7.3. Abokatutza Elkargoetako Emakumeei Laguntzeko Zerbitzuan gutxienez 2 urtez lan egin izana.
- 7.4. Berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prestakuntza-ikastaroetara joan izanaren ziurtagiriak, erakunde antolatzaileek emandakoak. Gutxienez 50 ordu ziurtatu behar dira.

Beharrezko dokumentazioa epe horren barnean ez aurkezteak ekarriko du lizitatzaillea prozesutik baztertzea eta zehapen bat ordainaraztea, kontraturako kalkulaturako zenbatekoaren % 5 adinakoa, baita kalte-ordain osagarriak ere, portzentaje hori gainditzen duen ororentzat.

15.- ESLEITZEKO PROPOSAMENA

Kudeaketa Unitateak, aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela egiaztatu ondoren, esleipen-proposamena egingo dio kontratazio-organoari. Proposamenak proposamen onargarria egin duten entitateen lehentasun-ordena adieraziko du, esleipen-irizpideak aplikatuz lortutako puntuazioekin.

Esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko kontratua esleitzeko ebazpena onartzen ez den bitartean.



16.- ESLEIPENA

16.1.- Esleipena. Kontratazio-organoak kontratua esleitzeko ebazpena emango du, gehienez ere hilabeteko epean, formulen bidez kuantifika daitekeen eskaintza jendaurrean irekitzen denetik zenbatzen hasita. Ebazpen hori arrazoitua izango da, eta gutxienez eskaintzak zergatik baztertu diren eta hautatutako eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak jasoko ditu.

16.2.- Kontratua osatzea. Kontratua esleipena egitearekin batera gauzatuko da. Esleipen-egintzaren eraginkortasuna etenda geratuko da 10 egun naturaleko epean, esleipenaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita. Esleipen-ekitaldia bertan behera geratuko da, baldin eta erreklamazio bat jartzen bada kontratazio publikoari buruz, erreklamazio hori ebazten ez den bitartean.

16.3.- Hutsik deklaratzeko. Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 101.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak esleitze-prozedura eman gabe utzi ahal izango du, behar bezala arrazoituta.

16.4.- Esleipenaren jakinarazpena eta publizitatea. Behin esleipena adostuta, lizitazioko parte-hartzaileei jakinaraziko zaie, eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko da, Foru Legearen 102. artikuluan ezarritakoarekin bat.

17.- BERMEAK

Kontratua formalizatu aurretik, esleipendunak esleipenaren zenbatekoaren % 4ko bermea jarriko du Udalaren alde (BEZik gabe).

Kontratistaren betebeharrak konplitzeari lotuko zaio bermea, bermealdiak irauten duen bitartean, eta, batik bat, atzerapenen zehapenak ordaintzeari eta kontratistak kontratua gauzatzean sor litzatekeen kalte-galerak konpontzeari.

Halaber, kontratistaren erruz kontratua ebazten denean, bermea konfiskatzen ahal da, sortu diren kalte-galerak berdintzeko behar adinakoa.

Bermea Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 70.3 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan eratu ahal izango da.



Bermea ofizioz itzuliko da kontratuarekin bermealdia bukatutakoan, Kudeaketa Unitateak txosten batean adierazi ondoren kontratua Udalak nahi bezala bete dela edo ebatzi egin dela, kontratistarena ez den erruarengatik.

18.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Kontratua administrazio-dokumentu batean formalizatuko da, gehienez ere 15 egun naturaleko epean, esleipena eteteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Aldez aurretik, esleipendunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu, gehienez ere hamabost egun naturaleko epean, esleipena jakinarazten denetik zenbatzen hasita:

- Kontratuaren ondoriozko betebeharrak betetzeko bermea Udalaren alde jarri izanaren egiaztatzea.
- Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, elkartearen eratzeko eskriturak eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia. Elkartearen iraupena bat etorriko da kontratuaren iraupenarekin.
- Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Legearen bidez behartuta egonez gero, Berdintasunerako Planaren kopia bat eta 2017an hura exekutatu zutela frogatzen duen dokumentazioa.

Kontratua ez bada epe barruan formalizatzen enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, interesdunari entzun ondoren, eta kontratuaren zenbatetsitako zenbatekoaren % 5eko zigorra eta kalte-galeren kalte-ordain osagarria ordainduko dizkio, ehuneko hori gaitzen duen guztian, edo beste epe bat, luzaezina, emango dio.

19.- ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Aholkularitza juridikoko zerbitzutik ateratzen den dokumentazio guztiak Altsasuko Udalaren idazpurua eta "Berdintasun Arloaren menpeko aholkularitza juridikoa" hitzak izan beharko ditu.



20.- PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 109. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratu honetan ez da prezio berrikuspenik izango.

21.- KONTRATUA GAUZATZEA

21.1. Kontratu hau gauzatzeko, kontratazio-agiri honetan, administrazio-klausula berezietan, berriazko preskripzio teknikoetan eta kontratistaren eskaintzan xedatutakoa bete beharko da.

Udaleko Berdintasun-agentek eta programa garatzen duen profesionalak zerbitzu hori gauzatzeko behar diren informazio- eta koordinazio-bilerak egingo dituzte.

21.2. Enpresa esleipendunak kontratu hau gauzatzeko kontratatzen dituen langileek ez dute inolako lan-harremanik izango Udalarekin, kontratu hori bakarrik enpresari baitago lotuta.

Alde horretatik, enpresa esleipendunak lan arloan, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren indarrean dauden betebeharrak bete beharko ditu bere kargura dituen langileei dagokienez. Bere aldetik betebeharrak ez betetzeak edo berak izendatutako teknikariek segurtasunari buruzko xedapenak hausteak ez du inolako erantzukizunik ekarriko Udalarentzat.

22.- GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 66. artikuluan xedatutakoaren babesean, honako baldintza bereziki sozial hauek ezartzen dira:

1.- Lan-arloan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunean indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak bete behar ditu kontratuak, eta, bereziki, enpresa kontratistaren jardura kokatzen den sektorean dagoen eremu apaleneko azken sektoreko hitzarmen kolektiboan ezarritako baldintzak.

2.- Eskaintza ekonomikoa egokia izan beharko da enpresa esleipendunak dagokion sektoreko hitzarmena aplikatzearen ondoriozko kostuari aurre egin diezaion, eta



aurreikusitako soldaten orduko prezioak ezin izango dira inola ere izan hitzarmeneko orduko prezioak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino txikiagoak.

3.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Arlo horretan, honako baldintza hauek bete beharko dira:

Enpresa kontratistak 250 langile baino gehiago baditu, edo Legeak aipatzen dituen gainerako alderdien eraginpean badago, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako Berdintasunerako Plana onartu eta garatu dela egiaztatu beharko du.

- *Hizkuntza eta irudi barneratzailea arautzen duen Ordenantzaren arabera* (NAO, 238. zk., 2011ko abenduaren 1ekoa), kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztia hizkuntzaren erabilera ez-sexistari jarraiki egin beharko da, emakumeen irudi diskriminatzaile oro edo estereotipo sexistak saihestuz eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate pluraltasunaren balioak dituen irudia sustatuz. Gainera, pertsonen buruzko datuak erabiltzen badira, sexuaren arabera bereizita aurkeztuko dira beti.

Horrez gain, Altsasuko Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantzaren 16.2 artikuluan jasotakoaren arabera, lizitatzailerik konpromisoa hartuko dute Udalak onartutako sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloa beren gain hartzeko.

Gainera, *Altsasuko udal-esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen Ordenantzaren arabera*, (223. NAO, 2014ko azaroaren 13koa), 2. Artikuluko b) atala, enpresa esleipendunak Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan zerbitzua emateko behar diren baliabideak izan behar ditu. Horretarako, herritar euskaldunekiko ahozko arreta (hasierako arreta, telefono bidezkoa...) euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko da. Herritarrek edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea. Herritarrekiko idatzizko harremana elebiduna izango da (oharrak...).



Enpresa esleipendunak eta Udalak euskaraz eta gaztelaniaz izanen dute hitzezko eta idatzizko komunikazioa.

Herritarrak euskarazko arreta presentziala behar badu, zerbitzu hori eskainiko duen profesionalak C1 maila izan beharko du.

Desgaitasuna. - Enpresa kontratistak bere plantilla osoan 50 langile edo gehiago baditu, gutxienez % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonen % 2k osatzen duela egiaztatu beharko du.

Udalak eskatzen duenean justifikatu beharko da baldintza hauek betetzen direla.

Kontratua exekutzeko baldintza berezi guztiak haien exekuzioan parte hartzen duten azpikontratistek bete beharko dituzte.

23.- KONPROMISOAK ETA EXEKUZIO-BALDINTZAK BETE IZANAREN JUSTIFIKAZIOA

23.1. Konpromisoak betetzea

Udalak egoki iritzitako dokumentazio eta datu guztiak eskatu ahal izango dizkio esleipendunari, eskaintzan jasotako konpromisoak betetzen direla egiaztatzeko. Ondorio berberekin, ikuskapen-lanak ere egin ahal izango ditu.

23.2.- Exekuzio-baldintza bereziak betetzea.

Enpresa esleipendunak 250 langile baino gehiago baditu, ziurtagiri bat igorri behar dio Kudeaketa Unitateari 10 egun balioduneko epean, kontratua sinatzen denetik aurrera, enpresaren plantillan zenbat langile dauden frogatzeko. Horrez gain, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako Berdintasunerako Plana diseinatu eta benetan aplikatu dela frogatzen duen dokumentazioa ere helaraziko dio. Baldintza hori 3/2007 Lege Organikoak behartzen dituen beste bi kasuetara ere hedatuko da.

Hizkuntza ez-sexista erabiliko dela ziurtatzeko, enpresa esleipen-hartzaileak Kudeaketa Unitatearen oniritzia jaso behar du hedapena egin baino lehen kontratua gauzatu bitartean kanpora zabaltzeko sortu den dokumentazio, publizitate, irudi edo materialekin.



24.- KONTRATU ALDAKETAK

Kontratu-aldaketen arloan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 114., 115., 143. eta 144. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

25.- KONTRATUA SUNTSITZEA

Kontratuak suntsiarazteko arrazoiak Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 160. artikuluan adierazitako kausa orokorrak izango dira, lege horren 175. artikuluan ezarritako arrazoi espezifikoek gain.

26- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA PRERROGATIBAK

Kontratu honek izaera administratiboa du, eta baldintza-agiri honek arautzen du, bere klausula administratiboekin eta zehaztaper teknikoekin. Bertan aurreikusten ez den orotan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta gainerako araudi aplikagarria aplikatuko dira.

Plegu honek, eranskinek eta gainerako dokumentu erantsiek kontratu-izaera izango dute. Plegua eta gainerako kontratu-dokumentuak bat ez badatoz, plegu hau nagusituko da. Era berean, kontratista esleipendunaren eskaintzak eta kontratua formalizatzeko agiriak kontratu-izaera izango dute.

Kontratuaren klausulak, kontratuaren gainerako agiriak eta betearazpenean aplikatu beharreko jarraibideak edo araudia ez ezagutzeak ez du salbuesten enpresa esleipenduna klausulak betetzeko betebeharretik.

Kontratazio-organoak prerrogatiba du kontratua interpretatzeko, kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzeko, kontratua suntsiaraztea erabakitzeko eta haren ondorioak zehazteko; hori guztia Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean adierazitako mugen barruan eta betekizunei eta ondorioei lotuta.



27.- ERREKURTSOAK ETA ERREKLAMAZIOAK

Kontratu hau administratiboa da; beraz, betebeharrak betetzearen eta xedapen horiek interpretatzearen ondoriozko gorabehera guztiak kontratazio-organoak ebatziko ditu lehenik.

Plegu honen kontra eta hura betetzeko ematen diren ebazpen guztien kontra, errekurtsu hauek jarri daitezke:

- Berraztertzeako errekurtsua Altsasuko Udalari, administrazio-egintza egin duenari, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa Kontratu Publikoen Auzitegian, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Horretarako, ezinbestekoa da erakunde lizitatzailleek posta elektronikoko bat ematea jakinarazpenak bitarteko telematikoen bidez egiteko.
- Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik hasita
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

28.-DATUEN BABESA

Datuak babesteko araudian xedatutakoarekin bat etorriz, lizitatzaillei jakinarazten zaie Udala dela beren datuen tratamenduaren arduraduna eta lizitazioan parte hartzea kudeatzeko erabiliko direla. Esleipendun suertatuz gero, aldean artean sortzen den harreman juridikoa kontrolatzeko eta gauzatzeko erabiliko dira. Era berean, jakinarazten zaio lizitatzailleen eta kontratua esleitzen zaien datuak Udalak egokitzen jotzen dituen baliabideen bidez argitaratzen direla.

Eskaintza aurkeztuta lizitatzailleek emandako onespeneren bidez lizitatzen dutenen datuak tratatzeko legitimatuta dago Udala. Enpresa esleipendunaren datuak tratatzeko, lizitazio



honen xede diren zerbitzuak emateko kontratua gauzatzearen ondorioz legitimatuta dago, eta datuak argitaratzeko baimena Nafarroako Kontratazio Publikoei buruzko 2/2018 Legeak ematen du.

Datuak gorde eginen dira aipatu xedea betetzeko behar den denboran, eta gorde eginen dira Udalak bere tratamenduaren ondoriozko erantzukizunak izaten ahal dituen bitartean. Era berean, artxiboei eta dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio-arauak bete behar dira.

Lizitatzailleek eskubidea dute datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta, egoera jakin batzuetan, beren datuen tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere, dpd@altsasu.net helbidera idatziz. Era berean, jakinarazten dizugu erreklamazio bat aurkez dezakezula Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, Jorge Juan kaleko 6. zenbakiko 28001. zenbakian (Madril) edo bere egoitza elektronikoaren bidez www.agpd.es.

29.-KONFIDENTZIALITASUNA

Kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du kontratistak. Betebehar horri bost urtez eutsiko zaio, informazioa jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Ezin izango da zabaldu enpresek konfidentzialtzat jotako informazioa. Ondorio horietarako, lizitatzailleek erantzukizunpeko adierazpenean adierazi beharko dute zer dokumentazioarentzat proposatzen duten konfidentzialtasuna. Konfidentzialtasun-adierazpena ezin izango da proposamen osora hedatu. Hala egiten badu, kontratazio-organoak modu arrazoituan zehaztuko du sekretu tekniko edo komertzialei eragiten ez dien dokumentazioa.

Hala eginez gero, kontratazio-organoak, arrazoiak emanda, sekretu tekniko edo komertzialei eragiten ez dien dokumentazioa zehaztuko du.



I. ERANSKINA: EMAKUMEENTZAKO AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUAREN GARAPENA GIDATU BEHAR DUTEN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Zerbitzu horren garapena zuzenean koordinatuko da udaleko berdintasun-agentearekin.

Proposamenak hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren arabera idatziko dira, hizkuntza eta irudi barneratzailea arautzen duen Ordenantzaren arabera (238. NAO, 2011ko abenduaren 1ekoa), eta pertsonen buruzko datuak erabiltzen badira, sexuaren arabera bereizita aurkeztuko dira beti.

Gainera, *Altsasuko Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantzaren* 16.2 artikuluan jasotakoaren arabera, lizitatzailerik konpromisoa hartuko dute Udalak onartutako sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloa beren gain hartzeko.

Aholkularitza juridikoko zerbitzuan, Berdintasun-agenteak honako eginkizun hauek izango ditu:

- Hitzorduek eta landu beharreko gaiak jasotzea, baita aholkularitza eraginkorragoa lortzeko beharrezko dokumentazioa ere.
- Aholkularitzako erabiltzaileekin harreman zuzena izatea.
- Doako justizia eskatzeko dokumentazioa jasotzea

Kontratututako entitateko profesionalak honako hauek egin beharko ditu, gutxienez:

- a) Aholkularitza indibiduala eta pertsonala ematea Berdintasun-agentearekin aldez aurretik hitzordua hitzartu duten emakumeei. Aholkularitza hori, gutxienez, hilean egun batean egingo da, 3 ordu eta erdiz, 13: 00etatik aurrerako ordutegian.
- b) Doako justizia eskatzeko dokumentazioa berrikustea, aurkeztea eta, hala badagokio, jarraipena egitea Abokatuen Elkargoan, emakume eskatzaileak hala eskatzen badu.
- c) Informazio-bilketa eta kasuen jarraipena diseinatzea.
- d) Altsasuko Udaleko Berdintasun-agentearekin koordinatzea (telefonoa, posta elektronikoa, bertaratuta...).



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 -
31800

e) Berdintasun-agenteak egindako informazio-eskaerei erantzutea, premiazkoztat jotzen dituen kasuetan.



II. ERANSKINA: PERTSONA EDO ERAKUNDE LIZITATZAILEA IDENTIFIKATZEKO EREDUA ETA JAKINARAZPENETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA

_____jaunak/andreak, NAN/IFZ:
_____ ; jakinarazpenetarako helbidea: _____

PK, _____ herria: _____ ; telefonoa: _____ ; faxa:
_____ bere izenean edo _____ ordezkari gisa (ez dagokiona
ezabatu) IFK:

AZALTZEN DU

- Kontratazio publikoaren arloko erreklamazioen kasuan, bitarteko telematikoen
bidezko jakinarazpenetarako helbide elektronikoa honako hau dela:

- Kontratazioa arautzen duen plegua ezagututa, kontratua eta aurkeztutako
eskaintza zorrotz betetzeko konpromisoa hartu du. Horretarako, gutun-azal hauek
erantsi ditu:

1. GUTUN-AZALA: Dokumentazio administratiboa.

2. GUTUN-AZALA: Formulen bidez kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideei buruzko
dokumentazioa.

3. GUTUN-AZALA: Formulen bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko
dokumentazioa.

Altsasun, 2023ko.....(a)ren.....(a)n.

ENTITATE LIZITATZAILEAREN EDO LIZITATZAILEEN SINADURA



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
 I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
 FAX 948 56 38 55
 www.altsasu.net
 altsasu@altsasu.net
 ✉ Garcia Ximenez 36 -
 31800

III. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN-EREDUA, KONTRATATZEKO ESKATZEN DIREN BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKOA

_____jaunak/andreak, NAN/IFZ:
 _____; jakinarazpenetarako helbidea _____

PK, _____ herria: _____; telefonoa: _____; faxa:
 _____ bere izenean edo _____ ordezkari gisa (ez
 dagokiona ezabatu) IFK: _____

Bere erantzukizunpean aitortzen du:

- Nik ordezkatzeko dudak erakundeak betetzen dituela (adierazi dagokionaren arabera) kontratatzeke baldintzak eta ez dagoela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 22. artikulutik 26.era zerrendatutako kontratatzeke debekuetako bakar batean ere sartuta.
- Konpromisoa hartzen duela, esleipena lortuz gero, agiri honetan eskatzen diren agiriak badituztela eta baliozkoak direla egiaztatzeke, gehienez ere zazpi eguneko epean, esleipena jakinarazten denetik zenbatzen hasita.
- Konpromisoa hartzen duela kontratua sinatu aurretik eskatutako dokumentuak aurkezteke, kontratazioa arautzen duen administrazio-klausula zehatzen pleguan ezarritakoaren arabera.
- Kontratuaren xedeak edo jarduerak lotura zuzena duela kontratuaren xedearekin, eta badituela kontratua behar bezala gauzatzeko behar beste elementu pertsonal eta material.
- Egunean dituela indarreko lege-xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak, laneko segurtasun eta osasunarekikoak eta laneko arriskuen prebentzioarekikoak, bai eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekikoak ere.
- Plegu honetan eskatzen den kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, tekniko eta profesionala duela.
- Isilpeko dokumentazio gisa honako hau deklaritzen duela:

Altsasun, 2023koaren(e)an.

PERTSONA EDO ERAKUNDE LIZITATZAILE(AR)EN SINADURA



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 -
31800

IV. ERANSKINA: FORMULEN BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEKEEN ESKAINTZA-EREDUA

_____jaunak/andreak, NAN/IFZ:
_____; jakinarazpenetarako helbidea:_____
PK:_____ herria:_____; telefonoa:_____; faxa:
_____ bere izenean edo _____ ordezkari gisa (ez
dagokiona ezabatu) IFK: _____

Altsasuko Udaleko Berdintasun Sailaren mendeko emakumeentzako aholkularitza juridikoko zerbitzua gauzatzeko konpromisoa hartzen du, jarraian egiten den eskaintzaren arabera:

1. Alderdi sozialak betetzeko eskaintza:

Atal honetan, hitzaldiak emateko zenbat ordu eskaintzen diren zehaztu beharko da. Hitzaldiak emakumeen aurkako indarkeriari edo familia-eskubideari buruzkoak izango dira (ezkontza, banantzeak, dibortzioak), eta kontratuak irauten duen urteen barruan eman beharko zaizkie beste eremu batzuetako profesionalei edo, oro har, herritarrei.

2. Eskaintza ekonomikoa: (Jarri zenbakiz eta letraz, bi hamartarrekin) – BEZik gabe-.

Altsasun, 2023ko aren(e)an.

PERTSONA EDO ERAKUNDE LIZITATZAILE(AR)EN SINADURA



V. ERANSKINA: DATU PERTSONA KOLEKTIBOEN TRATAMENDUA ETA DATUEN TRATAMENDUA

Tratamenduaren arduradunak kategoriatan tratatuko dituzten datuak interesdunak:

- Herritarrak.

Plegu honen xede den kontratua gauzatzeko, Udalak datu-mota hauek jartzen ditu esleipendunaren eskura:

- Identifikazio-datuak: izen-abizenak, IFZ/NAN; Seguritate Sozialeko zenbakia, helbidea, telefonoa, sinadura.
- Ezaugarri pertsonalen datuak: egoera zibila, familiaren datuak, jaiotza-data, adina, sexua, nazionalitatea, jatorrizko hizkuntza, ezaugarri fisiko eta antropometrikoak.
- Inguruabar sozialei buruzko datuak: etxebizitzaren ezaugarriak, jabetzak, elkarte eta eragileetako partaidetza, lizentziak eta baimenak.
- Datu akademiko eta profesionalak: ikasketa-titulazioak, ikaslearen historiala, lan-esperientzia, elkargo edo elkarte profesionaletako partaidetza.
- Enpleguaren xehetasunei buruzko datuak: lanbidea, lanpostua, nominako datu ez-ekonomikoak, langilearen historiala.
- Informazio komertzialaren datuak: jarduerak edo negozioak, lizentzia komertzialak.
- Datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruak: diru-sarrerak eta errentak, ondare-inbertsio eta -ondasunak, kredituak, maileguak eta abalak, banku-datuak, pentsio- eta erretiro-planak, nominako datu ekonomikoak, zerga-kenkariak eta zergei buruzko datuak, aseguruak, hipotekak, sorospenak eta onurak, kreditu-historia, kreditu-txartela.
- Ondasun eta zerbitzuen transakzioei buruzko datuak: ukitutako pertsonak emandako ondasun eta zerbitzuak, ukitutako pertsonak jasotako ondasun eta zerbitzuak, transakzio finantzarioak, konpentsazioak eta kalte-ordainak.
- Osasun- edo elbarritasun-datuak.
- Datu biometrikoak.
- Arau-hauste penalei buruzko datuak.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 -
31800

Sarbide hori TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN lokaletan egingo da, kontsulta bidezko sarbide soilarekin. Datuak TRATAMENDUAREN ARDURADUNARENAK ez diren sistema eta euskarrietan sartzeko berariazko debekua du, haren baimenik gabe.

SEGURTASUN-NEURRIAK

Datuak babesteko neurriak hartu behar dira, datu horiek arrazoizko konfidentzialtasuna, osotasuna eta erabilgarritasuna gal ez dezaten. Arriskuen analisiaren arabera, gutxienez, honako segurtasun-neurri hauek ezarri behar dira:

- Tratamendu-sistemak identifikatzea eta autentifikatzea: Baimenik ez duten pertsonen datu pertsonalen tratamenduari lotutako edozein tratamendu-sistematarako sarbidea ukatzea.
- Euskarrien kudeaketa: Euskarriak baimenik gabe irakurtzea, aldatzea, kopiatzea edo lapurtzea galarazteko neurriak ezartzea.
- Datuetara sartzeko kontrola: Langile baimenduek beren rolari edo erabiltzaile-profilari dagozkion datuak soilik eskura ditzaketela bermatzea. Erabiltzaileak kudeatzeko sistema bat ezartzea.
- Segurtasun-kopien sistema, sistemen erabilgarritasuna eta erresilientzia bermatzeko.
- Informazioa babesten dela bermatzeko kontrol-prozedura bat ezartzea, neurri teknikoen eta antolamendu-neurrien eraginkortasuna aldian-aldian berrikusiz, balioetsiz eta ebaluatuz, eta, horrela, tratamenduaren segurtasuna bermatzea.
- Datu pertsonaletara sarbidea duten langileei lan-jarraibideak ematea, datuak babesteko araudiaren arabera tratatzen direla bermatzeko. Jarraibideetan neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak jasoko dira.

Arriskuen analisisa edo eraginaren ebaluazioa erabiliz, esleipendunak ez dio aipatutako neurriak ezartzeari utziko, baldin eta, aldez aurretik, neurri horiek aplikatu behar ez direla Udalarik justifikatzen ez badio eta berariazko onespena lortzen ez badu.